

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Urriaren 1ean Sarrigurengo (Eguesibar) osasun-zentroko zerbitzua abian jarriko da

Sarriguren, Ardanaz, Badostain eta Erripagañako 5.898 pertsona artatuko ditu

Viernes, 02 de septiembre de 2011

Urriaren 1ean Sarrigurengo (Eguesibar) osasun-zentroa abian jarriko da, Sarrigurengo oinarrizko zonalderako lehen mailako arreta eskainiko du, eta nukleo horretako 5.898 pertsona artatuko ditu. Eguesibarreko Ardanaz eta Badostaingo udalerriei eta baita Erripagaña udalerrinari ere lehen mailako arreta eskainiko die. Biztanle horiek guztiak orain arte Mendillorriko (Iruñea) alboko oinarrizko zonaldean artatzen ziren.

Osauneko kontseilari Marta Vera Janín Eguesibareko alkate José A. Andíaarekin bildu da gaur, zentroa noiz irekiko den esateko.

Eraikin berrian ere, haur eta gazteen osasun mentaleko zentroko eta inguruko emakumeari arreta emateko zentroko instalazioak egongo dira. Eraikina lau solairutan banatzen da: haur eta gazteen osasun mentaleko zentroa dagoen sotoak (iragan uztailean abian dena); behe eta lehen solairuak, lehen mailako arretako zentrorako direnak, eta hirugarren solairua; azken honetan emakumeari arreta emateko zentroa dago.

Zerbitzuko lan-taldea 13 langilek osatzen dute: hiru familia-medikuk, bi pediatrek, erizaintzako langileek (lau), gizarte-langile batek eta hiru administrarik. Kopuru hori sendotzen joango da biztanle-kopurua igo ahala.



Vera kontseilaria eta Andía, gaur goizean izan duten bileraren une batean.